

Errepideak

PPk Urumeako
autobidea
aurreratzea
eskatu du

DONOSTIA

PPk Errepideen Plan Orokorren Aurrerapenari alegazio bat egin zion atzo Gasteizko Legebiltzarrean, «Urumeako autobidea egiteko epeak aldatu asmoz».

Gregorio Ordoñez PPk kideak autobidea egiteko epeak aurreratzea eskatu zuen Loiola-Astigarraga eta Astigarraga-Hernani bitarteko zatietan. Lehen zatia 1995ean eta bigarrena 1999an hasiko lirateke.

PPk, lanaren lehen zatia 1994. urte hasieran eta bigarrena 1996. urtean hastea eskatu zuen. «Loiola eta Hernani bitarteko errepidean trafiko izugarria egoten da eta auto iladak eta pilaketak eguneroko kontua dira» esan ostean lasterrean egingo diren industria eraikinek eta etxebizitzek errepidearen egoera okertu egingo dutela gehitu zuen.

N-1 eta Maltzaga-Urbina batera
eraikitzeak aukera aztertuko da

Goierri eta Tolosaldean positibotzat jo dute Jaurilaritzaren erabakia

Eusko Jaurilaritzak eta, bide batez, Errepideen Plan Orokorraz arduratzen den Batzordeak, Maltzaga-Urbina eta N-1 errepidearen bikoizketa batera egitearen bideragarritasuna aztertzeko erabakia hartu dute. Batzordeak kontutan hartu ditu Errepidearen Plan Orokorren Aurrerapenari eginiko alegazioak.

KOLDO GOITIA / DONOSTIA

Alegazio hauen artean, Goierri, Tolosaldea eta Sakanako alkateek eginikoak daude. Aipatutako alkateak Maltzaga-Urbina autopistaren eraikuntza N-1 errepidearen bikoizketa baino lehen egiteko Eusko Jaurilaritzak azaldu zituen asmoekin ez zetozen bat.

Eusko Jaurilaritzak lehen mo-



mentuan azaldutako planaren arabera, Maltzaga-Urbina autopista 1993 eta 1998. urte artean eraikiko da. N-1 errepidearen bikoizketa Etxegaraten, ordea, ez da egingo 1999. urtera arte. Hau ikusita, lehen aipatutako eskualdeko alkateek beren ezadostasuna eta kezka berehala plazaratu zuten.

Jaurilaritzak eta Errepideen Plan Orokorren Batzordeak bi alternatibak batera egiteko aukera kontutan hartu badute ere, Jaurilaritzaren iturriek esan dutenez «azterketak egiteko enkar guak ez du esan nahi hasierako proiektua aldatu egingo dela, erabakia hartu aurretik aukera guztiak aztertu nahi direla baizik».

POSITIBOA
ETA
GARRANTZITSUA

Errepideen Plan Orokorren Batzordeak enkargatutako azterketak positibotzat eta oso garrantzitsutzat jo dute N-1 errepidearen inguruko herrietako alkateek. «Oso positiboa izan da notizia hau. Eusko Jaurilaritzak egindako planteiamendua Etxegarateko bikoizketa 2004. urtera arte atzeratzea izan zen. Orain ikusi da guk egin genuen eskaerak aduela biderik. Bai politikoki, bai ekonomikoki gaizki planteiatu da arazo hau; esan da bat egiten bazen bestea ez zela egingo. Guk hau horrela ez dugu inoiz planteiatu, guk planteiatu dugu biak osagarriak direla», adierazi digu Jose Luis Arriola Beasaingo (Gipuzkoa) alkateak.

Jenaro Bordegarai Alegiko (Gipuzkoa) alkateak ere iritzi bera azaldu du. «Etxegarateko bikoizketa berehala burutu behar-ko litzateke, zeren eta zirkulazioa hortik doa», adierazi digu Bordegarai.

HILDAKOAK



BIZKAIA

BILBO

Segundo Ijalba Bringas, 78 urte.
Enrique Crespo Ara, 64 urte.
Jesus Robledo Abajo, 87 urte.
David de la Sola Heredia, 99 urte.
Dolores Oribe Villota, 91 urte.

AREETA

Maria Nieves Uriarte Zuazua, 75 urte.

BALMASEDA

Basilio Garagorri Perez, 79 urte.

BARAKALDO

Elias Dominguez Rubio, 61 urte.

BASAURI

Jose Luis Monasterio Uribarri, 69 urte.
Miguel Ramirez Mateos, 58 urte.

BERMEO

Luciano Telletxea Leniz, 90 urte.

SESTAO

Eufemia Baskones Perez, 78 urte.

URDUÑA

Francisco Larrazabal Ugarte, 78 urte.

URTUELLA

Casimiro Diez Arizmendi, 73 urte.
Esperanza Aldama Martinez de Lejarza, 95 urte.

ZORNOTZA

Rosario Artabe Barrena, 54 urte.
Tomas Txasko Berrojalbiz, 64 urte.

GIPUZKOA

DONOSTIA

Maria Teresa Aranburu Irazoki, 93 urte.
Miguel Maria de Zubiaga Imaz, 89 urte.
Asuncion Ibañez Espallargaz, 76 urte.
Ladislao Pintado Gallo, 81 urte.

ALEGI

Jose Miguel Labaka Agirrezabala, 67 urte.

BEASAIN

Felipe Aranburu Mariezkurrena.

DEBA

Maria Piedad Criado Sastre, 82 urte.

HERNANI

Juan Miguel Etxeberria Galarza, 85 urte.

LAZKAO

Mercedes Zubiria Garmendia, 80 urte.

MUTRIKU

Fernando Basterretxea Arrizabalaga, 60 urte.

ZARAUZ

Pepita Salguero Zala, 90 urte.
Dominika Pagola Esnal, 77 urte.

ARABA

GASTEIZ

Ramona De Hoyos Merino.
Gerardo Montoia Aberasturi, 81 urte.
Carmen Agirreurreta Longarai, 79 urte.

PEDRUZO

Higinia Roa Kintana, 90 urte.

NAFARROA

IRUÑEA

Antonia Ibarra Irigoien, 71 urte.
Maria del Carmen Marin Mateo, 40 urte.

ARRAITZ

Antonio Etxenike Barberena, 68 urte.

ARRIPODAS

Marcelino Iriarte Huarte, 69 urte.

ATARRABIA

Serapia Jimenez Goldaraz, 79 urte.

BARAÑAIN

Aristides Arroyo Lopez, 84 urte.

LAPURDI

BAIONA

Etienne Laffite-Verges, 83 urte.

BASUSARRI

Paul Esteinou, 63 urte.

DONIBANE LOHIZUNE

Raoul Villanueva, 69 urte.

GETARIA

Jean Faber, 68 urte.

JATSU

Pierre Arhets, 82 urte.

KANBO

Jacques Clamart, 63 urte.

Nobel sariak

Charpak frantziarra eta Marcus kanadarra
dira Fisika eta Kimika Nobel saridunak


DONOSTIA

George Charpak Pariseko Fisika eta Kimikako Eskola Nagusiko irakasleak jaso du aurtengo Fisika Nobel saria eta Kimikarena, aldiz, Rudolph A. Marcus kanadarrarentzat izan da.

George Charpak frantziarrari partikulen detektoreen garapen eta aurkikuntzagatik eman zaio saria. Berak hari anitzetako kamara proportzionala asmatu zuen 1968. urtean, hau partikulen fisikarako Europako laborategia da eta aurkikuntzak posible egin zuen hari kamara mota ezberdinen garapena.

«Egun partikulen fisikan egiten den ezein experimentotan Charpakek asmatuikoari jarraituz eginiko sistema detektorea erabiltzen da» adierazi zuen sariak ematen dituen Akademiak.

Marcusek Kaliforniako (EEBB) Institutu Teknologikoan egiten du lan. Akademiaren hitzetan «sistema kimikoetan transmisio elektronikoaren erreakzioari buruzko teoriari eginiko ekarpenengatik» esku-



Charpak eta Marcusek jaso dute Fisika eta Kimika Nobel saria.

EFE



ratu du Kimika Nobel saria. Marcusen teoriari esker, herdoila, landareentzako eguzki izpien erabilera nahiz fuelaren produkzio fotokimikoa gisako fenomeno buruzko aurrikuspenak egin daitezke.

Besteak beste, museoetako objektuak eta antzinako obrak zergatik deusezten diren jakin da

berak egindako lanari esker, Lenart Ebersson Suediako Zientzien Erret Akademiako kimikoak azaldu bezala. Nobel sariagatik bai Marcusek, bai Charpakek 1.200.000 dolar poltsikoratu dituzte. Sari banaketa, bestalde, datorren abenduaren 10ean egingo da Stockholmen (Suedia) bertan.